

# **Nekane Balluerka, EHUko errektorea. Hauteskunde kanpainiaren azterketa komunikazioaren ikuspegitik (2016-2017)**

(Nekane Balluerka, rector of EHU. Analysis of the electoral campaign from the prism of communication, 2016-2017)

Agirregabiria Lasagabaster, Ander;  
Euskal Herriko Unibertsitatea-Universidad del País Vasco  
Kristo Zeharkalea, (48480) Arrigorriaga, Bizkaia  
anderagirregabiria@gmail.com

Jaso: 18.11.2017

BIBLID [eISSN 1988-3935 (2017), 16; 7-36]

Onartu: 25.02.2018

---

*Ikerketak EHUko errektore Nekane Balluerkaren 2016ko hauteskunde kanpainia aztertzen du komunikazioaren ikuspegitik. Azterketarako erabilitako metodologia elkarrizketa sakonetan, edukiaren analisisan eta solasaldi laburretan oinarritzen da. Ikerketan ondorioztatzen da, besteak beste, Euskal Herriko Unibertsitateko errektoregai zen Balluerkak, gaur egungo informazio gizartean, bozeramaile bati eskatzen zaizkion ezaugarri estandarrak dituela.*

*Gako-hitzak: Nekane Balluerka. Euskal Herriko Unibertsitatea. Errektorea. Hauteskunde kanpaina. Hezkuntza Komunitatea.*

*La investigación analiza la campaña electoral de 2016 de la rectora Nekane Balluerka desde el prisma de la comunicación. El estudio presenta una metodología basada en entrevistas en profundidad, análisis de contenido y breves conversaciones. La investigación extrae la conclusión, entre otras, que la que fuera candidata al rectorado de la Universidad Pública Vasca, tiene las características estándares que se le pide a un o una portavoz en la sociedad de la información de la actualidad.*

*Palabras clave: Nekane Balluerka. Universidad del País Vasco. Rectora. Campaña Electoral. Comunidad Educativa.*

*La recherche analyse la campagne électorale de 2016 de la rectrice Nekane Balluerka du point de vue de la communication. L'étude présente une méthodologie basée sur des entretiens approfondis, l'analyse de contenu et de brèves conversations. La recherche tire la conclusion, entre autres, que le candidat au rectorat de l'Université Publique Basque, présente les caractéristiques normales que la société de l'information actuelle peut requérir.*

*Mots-clés : Nekane Balluerka. L'Université Publique Basque. Rectrice. Campagne électorale. Communauté Éducative.*

## 1. SARRERA

Nekane Balluerka Lasa ia ezezaguna izan da orain arte gizarteko komunitate gehienentzat. Liburu zein aldizkarietako artikuluak idatzi baditu ere EHUko ikasleen emaitza kualitatiboak miatzen edota psikologiaren esparrua lantzen, unibertsitateko errektorea egoki “janzteko” dekalogorik ez da aurkitzen. Hortaz, bozeramaile akademiko orok kontuan edukiko lituzkeen ardatzak topa daitezke.

Komunikazioaz hitz egitea beraz, derrigorrezkoa. Kontzeptu zabala eta ikuspegi anitzak onartzen dituena da komunikazioa, igorle eta hartzailearen hartu-emanean kokatzen duena *Jose Luis Piñuelek Teoría de la Información y ciencias humanas, revisión del estatuto epistemológico del análisis de mensajes lanean*. Berton, “pentsaezintzat” jotzen du gizakien lotura komunikatiboa ez denik gertatzen zifra eta logika seinaleen konstruktiopean (1981:70). Gainera, mezuaren igarotzaren testuingurua tratatzen du Piñuelek, hurrengoa adieraziz: “Inguruko jazoerek, definizioz, estimuluen jarrera har dezakete eta horrela ihardespren posibleen edota alternatiben sistema birdoitu” (1981:85). Estimuluak aitzaki, Abraham Moles pentsalari frantsesak *Teoría informacional de la observación* lana plazaratu zuen pertzepzioak gizartean duen garrantzia esplikatzeko eta norbanakoak barrunbean dituen muga espiritual gisa aurkezteko. Zenbaitetan, errealitatean dauden harresi moral esplizituak, alegia. Ezagutzan aurrera eginda eta informazioaren arloa oraindio landu gabe, segidan irakurri daitezkeen hitzak, Molesenak pertzepzioa azaltzen: “Hautematea formak bereiztea da; konprenitzea, estrukturak banatzea” (Cfr. Piñuel, 1981:71).

Hautematearen ikerketa *La información, ¿abstracción o realidad?: Las paradojas de un concepto fundamental* dokumentuan hurbiltzen dute Beatriz Gil Mazak eta Pedro C. Marijuanek esanez pertzepzioa gizabanakoaren bizipen historikoetan oinarritzen dela jakinduria abstrakzio bitartez barneratzeko (1996:13). Halere, markoan pausuak emateko, informazioa da handienen miatzen dutena. Arian ere, zer da informazioa?

“La información forma parte de nuestro universo, es un componente implícito de cada ecuación que gobierna las leyes de la física, y manifiesta su efecto en su interacción con la materia y la energía. Si un sistema exhibe organización, contiene información. La organización no es sino el orden que presentan las partes constituyentes de un sistema. Orden es opuesto a desorden” (Maza eta Marijuan, 1996:15).

Informazioa, izan Nekane Balluerkaren kasurako zein beste guztietarako, interakzioan aurkitzen dute materia eta energiarekin, gizarteak duen ordenazioan aldaketak sortzeko edo berdin segitzeko. Gaiari eta ikusmirari lotuta, Biologian aditu Tom Stonierrek zeritzon informazioak harreman “intrintsekoa” duela jendartea antolatze sistemarekin eta horrela, organizatze mailaren erantzuna ala kausa informazioa dela (Cfr. Maza eta Marijuan, 1996:14).

Lehenengo ikergai komunikatiboak jorratuta, fokua unibertsitatearen testuinguruan zentratu behar, Nekane Balluerkaren agertokia, hain zuzen ere. Ohiko definizioetatik aldenduta, José Ortega y Gasset filosofo espainiarraren *Misión de la universidad* liburuak unibertsitate ororen xede eta helburu sozialak finkatzen ditu. Herriaren ardatzak kultura eta hezkuntza izanik, lehenengoaz dio Ortega y Gassetek kultura une, garai bakoitzeko ideien “nahitaezko sistema” dela (1992:04). Gainera, ikastokietako aire publikoa azpimarratzen du pedagogiak artifiziaiki sortutako giroaren aurretik. Bi ekuazio hauen arteko presio partekatuan topatzen du filosofo espainiarrak geruza akademiko ona (1992:02). Hausnarketetan sakonduta, unibertsitatearen asmoa ez du finkatzen ikasi behar dena ikastaraztean, ikasi daitekeena transmititzean baizik (1992:07).

Ildo berberarekin segituz baina zenbait urte beranduxeago, Juan Antonio García Galindok plazaratutako *Medios de comunicación y Universidad* idazkia azter daiteke, unibertsitateak eguneroko errealitatearen ezagutzan duen indarra markatzeko. García Galindok zeritzon, kultura akademiko plurala gailendu behar zaiola kurrikuluma asetzeko nahiari, normalean unibertsitateak gizartean duen isolamenduarekin amaitzeko (1993:64). Hedabideekiko kritika nabarian, ondorengo berbekin hurbiltzen du irakasleak ikaslekuen helburua: “Komunikabideek eraikitako errealitatearen aurrean, unibertsitateak, beste edozein hezkuntza mailak ez bezala, errealitatearen irakurketa aproposa eskaini dezake” (1993:65).

Zuzenean edota zeharka, unibertsitatean barne komunikazioak estaldura dauka. Garrantzia, gizadiari mezu, sentimendu desberdinak igortzeko. Iñaki Velazek *Las tres etapas de la comunicación interna*-n komentatzen du duela hainbat urte, adituek deskubritu zutela osatzen den kanpoko irudia iraunkorra izatea espero bada, erakundeak barnetik errealitate tinkoa eta identitate propioduna behar duela izan (1998:06). Argudioa, apika, izango litzateke gizakiek egituratzen duten enpresetan iritzi partzialak, aldenduak egon daitezkeela eta horrek egonkortasuna kolokan jartzen duela. Instituzioetan, barne komunikazio osasuntsuak kudeatzen dituen beharrianak besteak beste, Velazen aburuz, behekoak (1998:10):

- “Komunikazioa erakundearen porlana da. Enpresetan batasuna zuzkitzen du, taldean haztearen zentzua emanez.
- Proiektua osatzen dutenen atxikimendua bermatzen du, bakartasuna korporazioan
- bihurtuta.
- Enpresaren identitatea eraikitzen du, kideen konfidantza klimaren eta kolaborazioaren alde eginda.
- Erakundeko partaideen ezagutza errazten du, ikusmira globala lortzeko. Emaizta
- baikor zein ezkorrek plazaratzea dakar azken honek, ekipoak lortutako zifrak baitira.

- Departamentu aldenduak harremantzen ditu, kultura bakarri bilatu nahian.
- Komunikazioa, azken finean, proiektu bateratuaren hazkuntza instrumentua da, jarraipen edota aldaketarako elementu gisa portatzen dena.
- [...]”

Komunitate askotako instituzioa bihotzetik lantzeak zer suposatzen duen esplikatuta, bozeramaile onaren gida, dekalogoia lagatzen da marko teoriko honetan, Txema Ramírez de la Piscina egindako *Gabinetes de comunicación. Funciones, disfunciones e incidencia* azterketaren eskutik (1995). Kontzeptu orokorrenak planteatu ondoren, itaun zehatzak ihardestera. Hauteskundeetan, pertsona, programa edota mezu pluralak bozkutzen dira. Guztiak, aurretik bideratutako lana du komunikazio kabineteak iritzi publikoan erakunde edota pertsonen irudi baikorra eskuratzeko kanpo zein barne iturri aktiboak direlako (1995:27). Hizlari, esatarien kasuan zentratuta, zein izan daitezke gakoak berbaz berba egokiera komunikatiboa mantentzeko eta hartzaileak asetzeko? Euskal irakasleak hamar baldintza proposatzen ditu (Ramírez de la Piscina, 1995:74):

1. “Hizkuntza zehatza eta argia erabiltzea.
2. Ideia sinpleak transmititzea.
3. Eginak dauden esaldiak eta klasikoak diren hitz betegarriak, makulu errepikariak alboratzea.
4. Izenondo eta aditzondoak tentuz erabiltzea.
5. Garrantzitsuena hasieran adieraztea.
6. Adibideez baliatzea.
7. Ezinbestekoak diren zifrak bakarrik eskaintzea.
8. Adierazpen publikoetan patxada eta baretasuna mantentzea.
9. Ezusteko posibleak aurreikustea.
10. Jorratzen den kontua menperatzea”.

Bozeramailearen izaera Jose Luis Carrascosak definitzen du komentatuz kazetariarengandik jaso nahi den tratu bera eman behar duela informazioaren iturriak, hizlariak, alegia. (Cfr. Ramírez de la Piscina, 1995:75)

## 2. EGUNGO IKERKETAK

XXI. mendea hasi eta komunikazio kabineteen edota unibertsitateetan erreparatu duten lanak nahiko aniztu dira. Halaber, adierazteko modukoa da Rafael Yanes Mesaren *La adecuación del mensaje informativo* miaketa (2001). Berton eta orokorrean esplikatuz, dio informazioaren teoriak gomendatzen duela sortzen den mezu komunikatiboa publiko zabal bati bidaltzea, eta ez dagoela onartzerik informazioa hartzaile sorta batentzako

moldatuta ez egotea (2001:02). Hitzen aukeraketa eta ordenaren garrantziaz ohartarazteko, Luis Núñez Ladevèzerenak dira ondorengo berbak: "Argitasuna eta zuzentasuna ez dira aurkitzen errazenean, ezta sinpleenean ere ala zail eta erraza denaren erdiko barrutian, konplikatuena errazenen azaltzeko moduan baizik" (Cfr. Yanes Mesa, 2001:02). Hortaz, xedea lortzeko, xalotasuna behar dute mezuek. Umiltasunera orientatuta. Egokitzapenaren eta ulermenaren arteko eztabaida zabaltzen du orduan Yanes Mesak, bi prozedurak lotuta antzematen dituelako, aurkariak izan gabe (2001:02). Egokia, konpreni daitekeena izango da eta jomuga igorlearentzako edozein mezu ulertzea denez, eleen moldaketa nabaria izango da. Informazioan arazoak sortzearen arduraduna ez da hartzailea, publikoa izango, bai ordea komunikatzeko zerbait duena.

Komunikazioaren gaia instituzioetan kokatzeko, igorle bat baino gehiago edukitzeko hautarekin, komunikazio kabineteak datoz pentsamenduetara. Idoia Camachok deritza *Comunicación institucional. Funciones de los gabinetes de comunicación en la administración local*-en komunikazio kabineteen helburua dela "kohesioa proiektatzea, guztiak funtzionatzen duenaren sententzia plazaratuta, norbanakoak organizazio barruan dituen funtzioak beteta. Labur esanda, irudi orokor eta baikorra transmititzea" (2001:03).

"Ninguna entidad importante existe hoy sin preocuparse de la comunicación, porque ésta se ha revelado como indispensable en un universo competitivo. El éxito de una institución, de un político, de un producto, está relacionado en proporción directa a la eficacia de su actividad comunicativa. (...) Y no cabe otra alternativa que comunicar. Cualquier entidad que intente sobrevivir dignamente ha de emitir mensajes a los ciudadanos, para vender productos o servicios" (Cfr. Camacho, 2001:02).

Mezuak jendartera heltzeko, komunikazio kabineteek instituziotik kanpoko harremanak garatu behar dituzte, medioekin eta herritarrekin. Komunikabideen kasuan, deialdiak, komunikatuak, adierazpenak, elkarrizketak edota eskusibak izan daitezke tresna (2001:02).

Herriarekiko arretaren inguruan, deritza Ignacio Criado irakasleak (2009:06) instituzio publikoak gestionatzeko kutsu politikodun aukera erabilgarria dela, herritarrekiko konpromisoa azaltzen delako gardentasunarekin eta parte-hartzea bultzatuz. Interes hiritar/herrikoian bi jarraibide proposatzen ditu:

Bata, instituzioak herritarrengana hurbiltzea, eta bestea, erakundeak hurbileko gizartearentzako orientatzea. Aurreneko burutazioa argudiatzen du Criadok esanez erakundeen aktibitatearen berri izan behar dutela hartzaileek, ekimen ororen hasierako faseak zein jarraipeneak ezagutzeko. Orientazioa, burutzen diren proiektuen argudioak jakiteko, zerk motibatzen duen instituzioa proposamen zehatzak egitera. Guztiak, prozesu komunikatibo egokiaren kudeaketa definituko luke (2009:06). Komunikazioaren oinarriko tankerez hausnartuta, segidakoa da esparru pribatuak eta gizadiak globalki

eragiten duena egungo errealitatean: “Edozein organizaziok kanpoaldeko munduarekiko atentzioa behar du, testuinguru horretan aukerak eta mehatxuak topatzen baitira” (Criado, 2009:06).

Komunikazio instituzionalean sakotzeko, José Antonio Alcobenda eta María Cristina Pintoren *Consideraciones y propuestas de mejora de la comunicación en las instituciones públicas* analisia. Beroriek deritzote organizazio politikoek politika publikoen bitartez jendartea zuzentzen dutela. Horrela, hainbat dimentsiotako arazoak kudeatzen dituzte, esku-hartze soziala instituzioetatik hasita. Harreman informatiboak abiatzen dira iturri eta medioen lotura indartzeko eta irudi korporatiboa sendotzeko. Azken finean, erakunde publikoek kontaktuak izateak balio diezaiekete kudeatzen dituzten problematiken berri emateko (2011:114).

“Toda transmisión de significados institucionales entraña procedimientos de control y legitimización” (Cfr. Alcobenda eta Pinto, 2011: 115).

Iker eremua mugatzeko, bildu dira komunikazioaz ohikoz egiten diren gogoetak. Baina, zer gertatzen da hartzaile gazteekin? Non daude ezberdintzak, publikoaren adin tartean kenduta? Revilla Castro, Madrilgo Complutense unibertsitateko irakaslea: “Gaztaroaz hitz egiten denean jeneralean, diskurtso normatiboari egiten zaio erreferentzia, gazteengan zer den normala eta zer ez zehazten duena”. Ikuspegi honetan, Castrok enfasia jartzen dio instituzio sozialek gazteengan eduki behar duten beharrezko sentimenduan, erakundeak konponbideen arduradunak balira bezala aurkezteko eta existitzearen justifikazioa edukitzeko (Cfr. Alcobenda eta Pinto, 2011:116).

José María Herranz de la Casa, UEMCKo irakaslea izateaz gain, *La comunicación interna en la universidad. Investigar para conocer a nuestros públicos* artikulua sortzailea da komunikazio arloko beste bi profesionalekin batera. Hark 2005ean esandako adierazpenak biltzen ditu komentatuz unibertsitateko komunikazioa ezin dela medioetan agertzearekin soilik konformatu, instituzioaren irudia berrindartzeko aukera delako parte-hartze aktiboa izanez gero. Unibertsitatearen eta inguruko errealitateen espazio partekatua bilatzean ikusten du irakasleak aukera ikasle, irakasle, administrazio eta zerbitzuetako pertsonekin batzeko eta barne komunikazioa fintzeko. “Unibertsitateko komunitateek ezagutzeak instituzioak zer egiten duen, zeintzuk diren haren proiektuak eta emaitzak; hark partaideen integrazioa eta inplikazioa arakatzen du, motibazioa eta parte-hartzea areagotzeko”, da hezkuntzaren giroan Cuenca Voltránnek lagatako adierazpen betegarria. Gehitzeko dago unibertsitateko komunikazioaren egokiera baloratzeko proposamenak eskaintzen dituztela analisian zehar adituek, batik bat (Herranz de la Casa, Tapia eta Vicente, 2009:02-03):

- “Hausnartzea ikasleek beheranzko norabidean jasotzen duten informazio maila, goranzko bidean oster, irakasle ikertzaileek eta administrazio eta zerbitzuetakoek duten jakinduria informatiboa eta horizontalki instituzioan dagoen barne harremana.

- Erakundeko erreminta komunikatiboak miaztea lortutako eraginkortasuna interpretatzeko.
- [...]”

Unibertsitate publikoen adarrean sakontzen du bereziki Marta Isabel García Rivasek eta adierazten du instituzio akademikoek informazioa dutela “parte diren gizarteari kontuak emateko, azken instantzian, unibertsitatearen sostengu dira eta” (2003:01). Kazetaritzan lizentziatu Rivasek azpimarratzen ditu xede sozialak (2003:02):

1. “Unibertsitateak ezagutu behar du zein den instituzioari gizarateak egiten dion eskaria. Hortik abiatuta diseinatu beharko dira erakundearen helburuak.
2. Gizarteak igarri behar du zer den organizazioak eskaintzen diona, zer egiten duen unibertsitateak egokitzen zaionarekin, nola aprobetxatu ahal diren organizazioak ematen dituen hautak eta zer egiten duen instituzioak jomuga sozialak asetzeko”.

Eta Ortega y Gasset filosofoak pentsamendu luzeagoa egiten du orain arte hitz egindakoaz; unibertsitatea, komunikazioa, errealitate eta helburuak:

“La universidad tiene que intervenir en la actualidad como tal universidad, tratando los grandes temas del día desde su punto de vista propio –cultural, profesional o científico-. De este modo no será una institución solo para estudiantes, un recinto ad usum pelphinis, sino que, metida en medio de la vida, de sus urgencias, de sus pasiones, ha de imponerse como un “poder espiritual” superior frente a la prensa, representando la serenidad frente al frenesí, la seria agudeza frente a la frivolidad y la franca estupidez. Entonces volverá a ser la universidad lo que fue en su hora mejor: un principio promotor de la historia europea” (Cfr. Rivas, 2003:03).

Marko teorikoa biribiltzeko, Nekane Balluerkak eta edozein errektorek kontuan izan lezakeen adibidea Madrilgo Rey Juan Carlos unibertsitatearena, komunikazio korporatibo 2.0an sakondu dutelako. Elvira San Millánek, Francisco Blancok eta José Carlos Del Arcok gidatutako dokumentuan diote unibertsitate 2.0a dela elkarlaneko webgune baten parametroak bereganatzea unibertsitate sozialagoa edukitzeko eta osatzen dutenek zabalago parte-hartzeko. Lanabes berriek instituzioaren identitatea hobetzen dute komunikazioak jariatortasun gehiago duelako eta malguagoa delako agente guztientzako (2008:394-395).

Hartzaileak, kontsumitzaileak, unibertsitateko zerbitzuak edukitzeko publikoa zortzi ezaugarriekin definituko da, esaterako: adimentsua, informazio gehiago izango duelako eskura; indartua, kontsumituko diren medioak aukeratuko dituelako; eszeptikoa, burbuila teknologikoa gaindituta dagoelako 2.0aren inguruan esaten den “bigarren boom”-ari lotuta; konektatua; denbora eta leialtasun gutxikoa; kolektiboa, sare sozial anitzetan barneratzen; eta mugikorra, plataforma desberdinetan murgiltzeko (2008:396).

Etorkizunean ikusi daitekeen unibertsitate komunikatibo eta korporatibo 2.0a orainean bilakatzeko, jauziak egongo dira emateko (Cfr. Millán, Blanco eta Del Arco, 2008:397-398):

- “Unibertsitate sozialagoa lortzea komunikazio irekirako espazioarekin, bai instituzioko komunitateentzako eta baita gizartearentzako ere.
- Web 2.0aren filosofia bultzatzea gizadian.
- Software sozialaren adopzioa eta ebanjelizazioa unibertsitateari egokitzea.
- Unibertsitate modelo horizontalagoa eta irekiagoa edukitzea.
- “Open access”-aren ibilbidea jarraitzea ezagutzaren dibulgazioa, hedapena sustatzeko”.

Abaguneak leudeke pentsatzeko, apika, instituzioen alorrean komunikazioaren garapena ez dela fokatzen bozeramaileen prestakuntza soila lantzean, sareak eskaintzen dituen oportunitateak kontuan edukitzean baizik. Dena den, *Formación de Portavoces. Cómo conseguir una comunicación efectiva ante los medios y otros públicos* liburuan komentatzen da funtsezko ideia bezala bozeramailea “irudi pertsonal eta korporatiboaren konbinaketa” dela eta bien arteko “kongruentzia” beharrezkoa dela (Camacho, 2017:38). Emendatzeko, hautagaia izendatzearen erabakia, Idoia Camacho irakasleak komunikazio estrategia nabarmentzen duelako: “Kandidatuaren aukeraketak eta haren funtzioek koherentzia eduki behar dute erakundearen estrategia komunikatiboarekin, eta burutzen diren akzio guztiak komunikazio plan baten menpean egongo dira” (2017:38).

### 3. HELBURUAK

Korpus teorikoa definituta, ikerketaren jomugak markatu behar. Lanaren xedea Nekane Balluerkaren gaitasun komunikatiboak aztertzea da, hartzaile akademikoek osatzen dituzten komunitate desberdinentzako mezuak ezagututa. Horretarako 2016ko errektoretzarako hauteskunde kanpaina hartuko da ardatz gisa.

Ikerketa euskarri anitzetatik bideratuko da, aurrez-aurreko elkarrizketak eginda, telefono bitartezko hizketak edukita eta ikus-entzunezkoak aztertuta, ahalik eta ikuspegi pluralena, osatuena izateko. Helburuak betetzeko asmoz, hipotesiak eta iker-galderak proposatuko dira analisiaren bitartez frogatzeko ia argudioak dauden hasierako ideiak defenditzeko. Ondorioz, miaketaren indarra ez da aurkituko esplikazioen luzeran, balio kualitatiboan baizik. Errektorearekin, komunikazio arduradunarekin eta gobernu taldeko kidearekin izandako batzarrek kanpainaren barruko ikuspegia plazaratuko dute, hartutako erabaki komunikatiboen hausnarketa jakitera emateko. Kolektibo akademikoetatik salto egin eta kanpoko hedabideak aukeratuko dira euskal hedabideen ustea laburbiltzeko. Sortzen den mezutik ailegatzen den arteko igaropenean zer galtzen den, Euskal Herriko Unibertsitateko agenteek zer soinuan edo zaratan sortzen duten bermatzeko.



Gainera, eleek hornitzen dituzten diskurtsoak aztertuko dira baina baita gorputzaren mezuak ere. Jarrerak, begiradek, keinuek transmititzen dutena errektorearen bozeramaile, hizlari ala irudi publikoaren kemena topatzeko. Beharbada, “Nekane Balluerka, EHUko errektorea: hauteskunde kanpainaren azterketa komunikazioaren ikuspuntutik” txostenak balio dezake akats komunikatiboak deskubritzeko eta erronkak markatzeko. Miaketarako, derrigorrezkoak izan dira hipotesiak planteatzea.

Jarraian agertzen direnak ikerlanerako abiapuntuak dira. Hipotesiak ihardesteko, itaunen beharra ere egon da:

**1.H:** Euskal Herriko Unibertsitateko errektoregai zen Nekane Balluerkak, gaur egungo informazio gizartean, bozeramaile bati eskatzen zaizkion ezaugarri estandarrak (berbazko zein berbarik gabeko komunikazioari dagokionez) betetzen ditu.

1. **IG:** Zeintzuk dira berbazko komunikazioaren puntutik hautagaiaren aldeko eta aurkako bereizgarriak?
2. **IG:** Zeintzuk dira berbazkoa ez den komunikazioaren puntutik hautagaiaren aldeko eta aurkako bereizgarriak?
3. **IG:** Zeintzuk dira agerraldi publikoetan Balluerkak helarazitako sentimenduak?

**2.H:** Balluerkak EHUko errektoretzarako kanpainan edukitako diskurtsoa hurbila izan zen. Pentsatzekoa da, Euskal Herriko Unibertsitatea osatzen duten komunitate eta bozkatzaille potentzial anitzentzako mezuak izan zituela abstentzioari gailentzeko eta hartzaileak ilusionatzeko.

4. **IG:** Zer irudi eta mezu saiatu zen transmititzen Nekane Balluerkaren taldea?
5. **IG:** Zelan antolatu zen Balluerkaren kanpaina agerraldi eta medioen aldetik?
6. **IG:** Krisi egoeratan (Gasteizko “eskratxea”, adibidez) zein izan zen jarrera komunikatiboa?

**3.H:** Errektoretzarako 2016ko hauteskundeetan hautagaitza bakarra izatearen eraginak negatiboak izan ziren. Balluerkaren garaipena bozkatzailleek aurreikusitako ahal izan zuten eta, horrenbestez, botorik ez eman. Proiektuen arteko eztabaidarik ez zen egon eta elkarrizketatik bakarrikzketara igaro zen kanpaina.

7. **IG:** Nola kudeatu zuen Balluerkaren taldeak hautagaitza bakarra izatea?
8. **IG:** Kazetariak nola ikusi zuten, kanpotik, errektorearen kanpaina?
9. **IG:** Ona al da Nekane Balluerka bozeramaile jarreraren?

## 4. METODOLOGIA

Hauteskunde kanpainaren inguruko ikerketa bidea, bere osotasunean, kualitatiboa izan da. Mami informatiboaren kantitatea aztertu beharrean, mezu, funtzio eta agerraldien azterketa egin da berorien balioa miatzeko. Hiru ardatzek sostengatu dute ikerketa sistema: Elkarrizketa sakonak, edukiaren analisia eta solasaldi laburrak.

### 4.1 Elkarrizketa sakonak

Elkarrizketa, solasaldi ala hizketa sakonek botere handia eskuratu dute lan honetan, Nekane Balluerkaren gaitasunak ezagutu aurretik, ikusmira nahikoak bildu direlako eta errektoregai izan zenaren diskurtsoa azaldu dutelako. Horrela, komunikazio arduraduna eta taldeko errektoreorde hurbildu dira Balluerkarekin topatu aurretik. Terese Mendiguren izan zen kanpainan zehar hautagaia eta medioen arteko zubi funtzioa egin zuena elkarrizketak, agerraldiak prestatzeko, webgunea hornitzeko eta sare sozialetan informazioa partekatzeko. Marta Barandiaran, kide aholkularia, azaroaren 24an bihurtu zen, bozketak irabazi ostean, Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreorde. Artearen arlotik etorria elkarlanaren esangura sustatzeko. Behin unibertsitateko ordezkaritza gorena eskuratuta, Nekane Balluerkak lanerako adierazpen anitz egin ditu bozeramailearen lana nola kudeatzen duen jakiteko hezkuntza arloko instituzio publikoan.

Teresa Blasco eta Laura Oteroren *Técnicas conversacionales para la recogida de datos en investigación cualitativa: La entrevista*-ko hasierako kapitulua eduki da kontuan topaketa sakonen kemena ezagutzeko. Bizpahiru izaten dira, normalean, jorrotzen diren atalak elkarrizketatuekin, hainbat itaun hizketaren poderioz suertatzen direlako. Xedea, iker galdera edo gaiak ihardetsita edukitzea izango da (2008:04).

### 4.2 Edukiaren analisia

Sei ikus-entzunezko unitate hartu dira Balluerka errektorearen gaitasun komunikatiboak bozeramaile gisa baloratzeko. Bi aldeko egoeran, beste bi baldintza neutroetan eta amaierako biak, gatazka, istilu edota krisialdien aurreko jarreran. Prentsaurrekoek, elkarrizketa grabatuek eta deklarazioek betetzen dute azpiatala. Las técnicas de Análisis de Contenido: Una revisión actualizada da Jaime Andréu Abela irakasle ikertzaileak burututako txostena eta berton, egokieraz esplikatzen du produktu idatzi ala digitalen azterketaren izaera (Abela, 2000:02):

“El análisis de contenido se basa en la lectura (textual o visual) como instrumento de recogida de información, lectura que a diferencia de la lectura común debe realizarse siguiendo el método científico, es decir, debe ser, sistemática, objetiva, replicable, y válida”.

Gehitzeko dago edukiaren analisia kudeatzeko segidan ikus daitekeen bozeramaileen jarduna aztertzeko fitxa (Ramírez de la Piscina, 2010:72) oinarritzat hartu dela:

**Bozeramailearen jarduna aztertzeko fitxa**

<b>Bozeramailearen jarduna. Fitxa teknikoa</b>		
<b>Berbazko Komunikazioa</b>	✓	✗
Prosodia		
Argi adierazi		
Labur adierazi		
Abilezia dialektikoa		
Zuzentasuna (hizkuntza-mailan)		
Zehatz adierazi		
<b>Balioespena (0-3)</b>		
<b>Berbarik gabeko komunikazioa</b>	✓	✗
Gogobetetasuna		
Naturaltasuna		
Keinuak		
Janzkera		
Begirada		
Erakarmena		
<b>Balioespena (0-3)</b>		
<b>Helarazitako sentipenak</b>	✓	✗
Sinesgarritasuna		
Sedukzioa		
Koherentzia		
Lasaitasuna		
Sendotasuna		
Umiltasuna		
Oreka		
BEstelakoa		
<b>Balioespena (0-4)</b>		
<b>Azken balioespena (0-10)</b>		

Iturria : Ekoizpen propioa

### **4.3 Kazetariekin izandako elkarrizketa laburrak**

Manuel Canales eta Anselmo Peinadok (1994:06) deritzote agente sozialen aburuak eta egestura gizatiarra ezagutzeko, “focus group”-ak erabiliak direla amankomuneko leku eta topikoak aztertzeke, intersubjektibitatea izanik gakoa. Gizabanakoen artean zer bistako errealitate diskurtsibo egiaztagarriak ematen diren, hain zuzen ere.

Errandakoa jakinda, lau edo bost kazetari jarri nahi izan ziren elkarrekin Nekane Balluerkaren kanpainaz, komunikazioaz hitz egiteko eta hedabideek komunitate akademikotik at “eskratxea” (2016ko azaroaren 9koa) eta bestelakoak zelan ikusi zituzten ezagutzeko. Medioen distantzia geografikoa zinez handia izanda, topaketak era pertsonalean, telefonoz edota postaz eginda eskaintzen dira. Berriako Garikoitz Goikoetxeak, Deiako Idoia Alonsok, Eldiarionorte.es-ko Eduardo Azumendik eta El Correoko Marta Fernández profesionalek hartu dute parte analisisian. Hezkuntza arloko adituak dira eta komunikabide ezberdinetan Balluerkaren hauteskunde prozesua jarraitu zuten.

## **5. IKERKETA**

### **5.1 Elkarrizketa sakonak**

#### **5.1.2 Terese Mendiguren: “Kanpora begiratzea garrantzitsua izan da”**

Aurreneko solasaldia, Terese Mendigurenekin izan zen. Mendiguren EHUko kazetaritza 2. departamentuko doktorea da. ETB eta Bilbovisióneko erredaktore lanetan ibili ondoren, Nekane Balluerkaren komunikazio arduraduna izan zen komunikabide orekin harreman estua edukita. Besteak beste, <https://www.nekaneballuerka.eus> webgunea (egun ez da aurkitzen erabilgarri, hauteskundeak irabazteaz bat itxi zutelako) kudeatzearen arduraduna izan zen Balluerkaren programa, solasaldi zein albiste anitzak partekatzeke.

Premiazkotzat interpreta daiteke hasierako batzarra, errektoregoko Pedro Ugarterekin berba egin ondoren, kanpainaren ildoak nork zehaztu, markatu zuen airean zegoelako. Hori aitzakia izanik, Mendigurenek argi utzi zuen hark irakasle izaten segitzen zuela eta xedetzat Nekane Balluerkaren mezua “kanpoaldera” igarotzea zuela, soilik. Ez zegoela, beraz, hautagaitzako erabakien atzean. Horrela eta Terese Mendigurenek berak dokumentu bitartez hurreratutako datuen arabera, ezagutu daiteke unibertsitateko komunitatean errektore berriaren informazioak izandako indarra. Batik bat: 4.697 bisita Balluerkaren kurrikulumean; 3.664, ekipoaren zehaztapen azpi-orrialdean; 66.000 inpresio baino gehiago Twitter sare sozialean eta 50.000, Facebooken. Kanpaina hainbat hilabetetako lana izan zela adierazi zuen Terese Mendigurenek topaketan, harekin denboraz harremanetan jarri

zirelako eta, komunikatiboki, proiektua fokatuta zegoelako. Bi prentsaurreko egin ziren. Lehenengoa eta medioek sortutako zurrumurruek lagunduta, Balluerkaren hautagai izateko asmoa adierazteko izan zen, 2016ko urriaren 11an. Bigarrena, errektoregaiaren taldea aurkezteko, 2016ko urriaren 21ean.

Bi agerraldien artean, ez zen elkarrizketarik eskaini, guztiak ekipoaren prentsaurrekoaren ondoren onartzea zegoelako pentsatuta. Ia egunero entzun, ikusi ala irakurri ahal izan zen Nekane Balluerka ondorengo urteetarako posible zen EHUren proiektua aurkezten, Mendigurenek zeritzenez, “tentsioa mantentzeko”, ezin zelako egun bakarrean agerkari guztietan egon eta hortik isiltasunera pasa. Gestio korapilatsuaren sinadura kazetaritzako irakaslearena da, agendan zer, non eta noiz kokatzeaz arduratu zelako.

Hizketaldian barneratuta, Mendigurenek adierazi zuen zenbait hedabide ate joka hasi zirela elkarrizketen bila, baina bestelako elkarretarateren bat Balluerkaren taldeak bilatu zuela. Hauxe da *Pepucomag*-en kasua, EHUko gazte batzuek daramaten medioari beroriek deitu baitzioten. Jomuga? Barne kanpaina indarra hartzea. Atzeneko gaia elkarrizketan, komunikazio aldeari zegokiona izan zen. Terese Mendigurenek esplikatu zuen zer ezberdintasun nagusi dagoen ohiko kanpaina politiko baten eta unibertsitatekoen artean: Komunitatea. Deian eta bestelako komunikabideetan solasaldiak edukitzea “interesgarri” aurkitzen zuten Euskal Herriko Unibertsitatea osatzen duten askok medioak kontsumitzen dituztelako. Hala eta guztiz ere, haren hitzetan “ez da publiko masibo bat” unibertsitateak duena, agerkarien irakurle edo ikus-entzule guztiek ezin dutelako bozkatu EHUko hauteskondeetan eta, kasurako, Nekane Balluerkaren hartzaille potentzialak ez ziren bertan antzematen, zentroetan baizik. Fakultate, Campus anitzetako barne kanpaina izan zen gogorra errektore berriaren taldearentzako. Esateko dago, Mendigurenen ustez, aurrez-aurreko tratuan irabazi zituela botoak Nekane Balluerkak, “gertukoa, enpatikoa eta jendea aditzeko interes erreala” zuelako.

Denbora igarotzen zen heinean, ikergai, itaun berriak azaleratu ziren Mendigurenekin haren bulegoan, Leioan hortaz, izandako batzarrean. Tentsio uneak nola kudeatu zituzten esan eta mahaira *Ikasle Abertzaleak* mugimenduarekin edukitako liskarra hurbildu zen (oroitzeko dago Gasteizko “eskratxea” 2016ko azaroaren 9an suertatu zela) Terese Mendigurenek komentatu zuen Nekane Balluerkaren taldea, kanpainari hasiera eman baino lehenagotik, saiatu zela IArekin kontaktua edukitzen eta ezinezkoa izan zela (ikerketa honetarako ere saiakerak egon dira *Ikasle Abertzaleak* mugimenduaren bertsioa ezagutzeko eta ez da inoiz erantzunik egon).

Gainera, azalpenean sakondu zuen: “Nekane beti dio ez dakiela zer gertatu den, oso zaila egin zaiolako *Ikasle Abertzaleak* mugimenduarekin komunikatzea eta justu ikasleekin hitz egitera Gasteiza joan zenean ez zioten utzi berba egiten eta diskurtsoa ez zen aditu”.

Gatazka edo elkar-ulertzeak ez dauden momentuetan erabakiak hartu behar dira, informazio aldetik, iturri ororen ikusmira ezagutzeko. Hori dela kausa eta Gasteizko istiluekin lotuta, medioak adierazpen eske hasi zitzairen Balluerka eta kideei. Erabakia, komunikatu bat igortzea izan zen, Terese Mendigurenek esplikatu zuenez kanpainaren helburua ez zen arren eta jomuga hautagaitzako proiektuaren edukia azaltzea bazen ere, “kanpotik” zetozen gauzei heldu behar zitzairen, erantzukizuna baitzuten. Sare sozialetako zaraten aurrean, ez zen Balluerkaren taldearen ihardespenerik egon, pertsonalki ezin bazuten berba egin desadostasuneko parteek, sarean eztabaida ezingo zelako “serioski” bideratu. Komunikabideen auzia ardatza izan zen Terese Mendigurenen berriketan. Horrexegatik, akatsen azpi-atalerako tartetxoa egon zen, jakiteko ia hanka sartzerik egon ote zen. Gutxi, egia esan, eta potentzia baxukoak, arean ere, egun errektore denaren taldea aurkeztu zenean (bozketak jazo aurretik, hain zuzen ere) mintzaldia euskaraz eta gazteleraz egiteko hauta izan zuten Balluerkaren kideek. Hizkuntza argudio, hedabide bat kexatu zen (ez da medioaren izena ezagutzen) esanez ia zelan ulertuko zuten euskaraz esandakoa. Erantzuna, bikoizketa galderen txandan eskatzeko izan zen. Interes nabaria eduki zuenez medio hark, transkribapena posta bitartez bidali zitzairen kazetakoei. Nekane Balluerkaren webgunea kudeatzean, berebiziko arreta jarri zion Terese Mendigurenek euskaratze prozesuari, izenak, karguak edota taldekideen ibilbide profesionaletan hutsik ez egoteko. Akatsen bat jasoz gero, komunikabideei ezagutarazten zitzairen aldaera, Mendigurenek esan zuenez, banatzen zein informazioa medioek erabiltzen ez zuten arren.

Ateratako konklusioa ordenarena litzateke, Nekane Balluerkaren hautagaitza ez zelako supituko hartutako erabakia izan, Iñaki Goirizelaiaren taldetik ateratako katedraduna delako eta unibertsitateko komunitatera heltzeko metodoak, prentsan gutxienez, ikasita zituztelako. Baina Nekane Balluerkaren mezuaren sormenaren “sukaldea” miatzeko, pausa gehiago eman dira.

### 5.1.3 Marta Barandiaran: “Gasteizkoa ez genuen espero”

Terese Mendigurenekin elkartu ondoren, ikerketa laneko hurrengo topaketa kide aholkulari Marta Barandiaran izandakoa da. Aurretik esan denez errektoreordea da, zehazki Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreordea. Arte Ederretan doktorea izateaz gain, ibilbide profesionalean *CREANOVAn*, *Creative Learning and Networking for European Innovation*-en eta *IkasGura: Hezkuntza Aldaketa unibertsitatean* proiektuetan aritutakoa da Barandiaran. Nekane Balluerka berarekin lotura estua izan ondoren, hautagaitzako ekipoan sartu zen EHU<sup>n</sup> jauzi anitzagoak emateko.

Solasaldiaren xedea Balluerkaren taldeko sentimenen joan-etorriak ezagutzeko izan zen. Hori bai, azkenean lagatako zaporea gazi-gozoa da ekarpenak eta zalantzak daudelako erabaki komunikatiboan inguruan. Marta Barandiaranekin izandako batzarra Leioan aurkitzen den errektoretzan

jazo zen, hirugarren solairuan (atezaintzako baimena behar duena, sarrera mugatua baitauka), haren bulegoan. Argazkia, hortaz, bertan ateratakoa.

Barandiaranen parte-hartzea ez zen kasualitatea izan, ezta beraz, fitxaketzat konprenitzen denetarikoa, Marta Barandiaran Nazioarteko Harremanetako zuzendaria zenean, Nekane Balluerka zelako haren errektoreordea. Kontaktua, aurretik zegoen finkatuta. Halere, behin hautagaitza ofiziala izanda, errektore berriaren kideek pentsatu behar izan zuten zein unibertsitate mota zuten begiko. Hauteskundeetarako mezua, alegia. Barandiaranek esplikatu zuenez, EHU-ren erretratua egitea “lortu nahi zuen Nekane”. Balluerka Iñaki Goirizelaia errektore ohiaren taldean egon zenez, kontinuitate, errepikapen ala jarraipenaren teoria alboratu zuen “oso pertsona askea” dela eta “ideia propioak” dituela defendatuz.

Hauxe bozetako emaitzen aurretik egindako lana, zifrak eskuetan izanik (Balluerkak hauteskundeak irabazi zituen botoen %61,33ko babesarekin) balorazioa oso ona delako, zehaztapen batzuekin: “Harrera ona izan genuen ikastegietan eta kolektiboetan, kenduta ikasleekin izan genituen arazoak, batez ere Gasteizen”. Horri lotuta, galdetu behar ia liskarrik ala harrera tinkorik espero zuten hiriburu arabarrean eta Marta Barandiaranen azalpena, konkretua: “Ez, ez genuen aurreikusi hain harrera gogorra izatea. Bilera gehiago izan genituen ikasleekin, arazorik eduki gabe. Prest geunden ikasleen kexak, iradokizunak aditzeko eta ez, ez genuen espero”. Ikasleen gaia nonahi eta nolana, Barandiaranek elkarrizketan zeritzon zaila dela ikasleria mugitzea, gehienek oso urrun ikusten dutelako errektoretza eta ez direlako inplikatzeko. Adibidea, Nekane Balluerkak Leioan ikasleekin egindako topaketa bat zeinetan 15 pertsona besterik ez ziren bertaratu. “Ikasleak unibertsitate ikastera datoz eta bertako politika, nolabait, ez zaie axola”, izan zen errektoreordeak pertsonalki egindako hausnarketa.

Kanpainaren inguruan beste behin hitz egiten, hautagaitza bakarra edukitzea txarra zela zeritzoten Nekane Balluerkaren taldetik beste norbaitekin ezin konparatzea, ideiak ez kontrastatzea arriskutsua izan zitekeelako bozkatzaileei, zeharka bazen ere, abstentziora jotzeko gonbita eginez. Gainera, solasaldian nabaria izan zen Balluerkaren gizarte eta unibertsitate hurbiltzeko saiakera, Barandiaranen iritziz “garrantzi handia” ematen ziolako. “Euskal Herriko Unibertsitate publikoa gara eta gizartearen eragile izateko beharra daukagu”, izan zen elkarrizketan Marta Barandiaran, Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreordeak utzitako azken mezua.

Goiago esan denez, orain arte egindako elkarrizketek ekarpenak izan dituzte baina baita hutsuneak ere, ihardetsi gabeko erantzunak daudelako. Marta Barandiaranekin erabaki komunikatiboez hitz egin (Gasteizko istiluen inguruan, esaterako) eta haren ardura ez zela izan azpimarratu zuen. Lehenago, ordea, Mendiguren komunikazio arduradunak jakitera eman zuen (aurreneko elkarrizketan) webgune eta medioetarako Balluerkaren taldeak hartutako deliberamenduak idazten zirela. Ondorioz, nor dago hitzen, sloganen eta erantzunen osaketan? Soilik Nekane Balluerka? Irudiaren

partetik, esplikazio berbera. Kanpainan errektore berriaren aparteko irudirik ez zela egin komentatu zuen Barandiaranek, errektoretzan egindako bileran.

#### **5.1.4 Nekane Balluerka: “Nire izaera arazoei aurre egitea da”**

Urtarrileko bigarren batzarraren ondoren, eta Balluerkaren taldea ezagututa, aurkezten den ondorengo hizketaldia errektorearekin egindakoa da. Horrela, 2016ko azaroaren 24an EHuko komunitateak errektore bihurtu zuen Nekane Balluerka Lasa lan honetako ikerketa mikroetara hurbiltzen da. Azpimarratzeko, beste behin, Pedro Ugarte Tamayo EHuko komunikazio arduraduna bitartekari izan zela elkarrizketatuaren eta elkarrizketatzailearen agendak kudeatzeko. Errektoregoko ateak irekita, hirugarren solairuan dena prest galde-erantzunei hasiera emateko. Balluerka ala ikerketa osoa, aurrez- aurre.

Berriketako lehenengo kontua errektoregoko hasierako asteen balorazioan, hautagai bihurtzeko motibazioan edota damuan zentratu zen. Balluerkak, karguaren esku-hartzea erritmo “handikoa” izan zela zeritzon, heldu eta bi aste beranduago gobernu kontseilua zegoelako ondorengo egunen eginkizunak markatzeko. Iñaki Goirizelaiaren, aurreko errektorearen taldekidea izan zenez, “aurrera pausua erantzukizunez” ematea erabaki zuela zioen Nekane Balluerkak hautagai izateko gurariak itaundu ostean. Atzeneko urteetako proiektuaren parte izan zelako, hain zuzen ere. Damutasunerako, orde, ez zen plazarik egon hizketan zehar, errektorearen ibilbidea laburra delako Balluerkaren aburuz eta duen interesa EHuren garapenerako zutabeak eraikitzean aurkitzen delako: “Gustatuko litzaidake ditudan ideia batzuk martxan jartzea edo, gutxienez, oinarria abian jartzea”. Lan zamaz, elkarrizketatuak onartu zuen dozentziatik errektoretzarainoko jauzian aldaketa handia nabaritu duela, psikologia klase eta miaketetatik unibertsitateko aurreneko lerrora igaro delako.

Hasierako aktualitate galderak xahutu eta denboran atzera egin behar azaroko hauteskundeak oroitzeko. Emaitzekin oso pozik gelditu zela adierazita, Balluerka mahaira oraindio atera gabeko “eskratxea” hasi zen esplikatzen. Hitza beraz, errektorearena: “Kanpaina gogorra egin zitzaidan, batez ere Gasteizen eskratxe bat izan nuelako. Ulertu ez nuena eta oraindio ez dudana konprenitzen. Gero hauteskunde egunean liskarrak izan eta adierazpen askatasuna urratzeko ekimen gogorrak egon ziren”. “Ez zara ongietorria” ala “borroka da bide bakarra”-ren pareko esaldiak bizi izan zituzten hautagaitza osatzen zuten kideek. Supituki gertaturiko krisia izan zenez, komunikatiboki lasai kudeatu zuten egoera: “Patxadaz, nire izaera arazoei aurre egitea denez, bultzaka zeuden gizabanakoen aurrean egon ginen ordu eta laurden, komunikatzen saiatuz. Guzti hau zinez harrigarria egin zitzaidan, pertsona talde batek hitz egiteko aukera ez ematea. Taldea uneoro egon zen nirekin eta sentsazioa tristurarena izan zen. Ez ziren oposizioko ikasle asko izan, batxilergo eta fakultate ezberdinetakoak mugiarazi baitzituzten autobusez”. Gaineratzeko, Balluerkak 12 egunetan 49 agerraldi eduki zituela, joan-etorri franko egun berean, abiaduraz eginak. Iritzi



kontrajarria edukitako gazteekin ia batzarrrik egon zen galdetu eta errektoreak ezezkua eman ondoren, Herri Unibertsitatea azpimarratu zuen komentatzeko berton elkarrizketatua izan zela eta interesgarri hartzen zuela ekimena, "unibertsalagoa" delako.

Kanpainako istiluetan sortutako eztabaida feminismoak bermatu zuen. Nekane Balluerkaren garaipenarekin, gizona ez den ordezkari goren du unibertsitate publikoak. Halaber, badirudi giza-talde guztiak ez zituztela konbentzitu eta oposizioko gazteen artean, "heteropatrialkal" elea azaleratu zen. Gestioa apika, sistema akaso. Kontuak kontu, Balluerka argia izan zen gaiarekiko azalpenean: "EHU heteropatrialkala dela diotenean, niri gustatuko litzaidake jakitea ia zergatik esaten duten eta zer egin dezakegun aldatzeko". Unibertsitatearen aldetik ez zaiola kostatu profesionalki haztea onartu zuen, maila berbera izanez gero, soldatetan banaketa sexistatik ez dagoelako. Triskantza, presio sozialean ordea: "Nire kasu pertsonalean, ibilbide hau egin ahal izan dut nire senarrak oso argi zeukalako. Bi alaba ditugu eta adiskidetzeari bi pertsonen gauza da. Hauxe ez dute argi ikusten gizon askok. Emakumeak seme edo alaba duenean mundu guztiak espero du jardunaldi partziala neskaren kontua izatea. Zergatik hartu behar du berak eta ez senarrak? Azalpena izan daiteke gizonzkoek orokorrean gehiago irabazi dezaketela eta hortxe, akordioak egiten dira".

Ikergai komunikatibora bueltatuta, Nekane Balluerkak elkarrizketan adierazi zuen kanpaina "etxekoa" izan zela eta beraz, ez zela egon kanpo aholkularitzaren beharrik (Mendigurrenek eta Barandiaran erantzun gabe utzitako erabaki komunikatiboen auzia hortaz, esplikaturik). Mezu ezberdinak prestatu zituen errektorearen taldeak hartzaile bloke anitzetarako, administrazio eta irakasle-ikertzaileen esparruan, karrera akademikoa berreskuratzeko eta suspertzeko zelako zutabe; irakasle-ikertzaileentzako enplegarritasuna finkatzeko eta ikerkuntzaren arloan lehiakortasunaren beharra. Kolektibo orori helarazi nahi zitzaizkien sententzia zen EHU euskal gizartearen erdian kokatzeko premia. "Jendea konturatu dadila unibertsitateak herriaren garapenerako zer egiten duen, hezkuntzaren garrantzia azpimarraturik", gehitu zuen solasaldian Balluerkak. Esanak indartzeko, elkarrizketatuak Mondragon eta Deustuko ikastokiek lortzen duten erakarpena azpimarratu zuen: "Gu gara unibertsitate publikoa, guztion unibertsitatea. Arrasatekoak, Deustukoak oso harro ikusten ditut, guztiz errespetagarria da baina gu, herriaren zutabe nagusia, ekarpen gehien egiten dituen izanik, harro ez egotea...suspertu behar da emozioa".

Unibertsitate publikoko errektorearekin mantendutako topaketak aurrera egin ahala, eguzkia kokalekuz aldatzen hasi zen. Goiztiarra izatetik, eguerdirako prestatzen. Euskararen egoera tratatzeko beharra zegoen, EHUko gidariak zelan baloratzen zuen jakiteko. Eskaintza azken urteotan hobetu dela esan zuen Balluerkak, 16.000 kreditutatik 20.000ra pasatu baita. Hala eta guztiz ere, aldatzeko eman daitezkeela onartu zuen, medikuntzan adibidez, praktikak elbakardunek soilik ez emateko. Berorien jubilazioa eta plaza elebidunen agerpena ezinbestekoak dira, hortaz, euskalduntze prozesurako. Solasaldian, hori bai, euskotar hizkuntzarekiko duen gatazka emozionala

esplikatu zuen: “Pertsonalki, asko kezkatzen nauen gaia unibertsitateko heziketa gazteleraz hautatzen dutenena da bitzta osoa euskaraz ikasi ostean. Ez dut ulertzen. Nik batxilergoa bukatu nuenean euskaraz ahalik eta irakasgai gehien egin nituen”.

Datozen urte eta erronkei begira, Nekane Balluerkak hizketaldia amaitu zuen desira profesionalak kontatzen, besteak beste: formakuntzaren kalitatea indartzea; konpetentzia teknikoek gain, zeharkako gaitasunetan, euskalduntzean, atzeritar hizkuntzetan eskaintza eta emaitzak areagotzea eta arrakasta tasa hobetzea. Xehetasunek egokitu zioten elkarriketari amaiera, Balluerkak *Teknopolis*entzako batzarra zuelako programatuta eta itaun guztiak ihardetsita zeudelako.

## 5.2 Edukiaren analisisia

Segidako taulek, argazki eran txertatuta daudenek, agerraldi pluralen azterketa eskaintzen dute, gogoan edukita beltzez ageri den espazioa hautatua izan dena dela, ezkerreko zutabea baiezkoa izanik eta, eskuinekoa, ezezkoa. Hortik, balioespena eta ikus-entzunezkoen batzaz-bestecko nota.

### 5.2.1 Agerraldi lasaiak

#### 5.2.1.1 NAIZ-ekin izandako hizketa (2016/11/13) eta EHUko Irrati Maratoiko parte-hartzea (2016/12/02)

<b>Bozeramailearen jarduna. Fitxa teknikoa</b>		
<b>BIDEOAREN ESTEKA:</b> <a href="https://www.naiz.eus/en/mediateca/video/nekane-balluerka-ha-llegado-el-%20momento-de-que-tengamos-una-ley-universitaria-mas-propia">https://www.naiz.eus/en/mediateca/video/nekane-balluerka-ha-llegado-el-%20momento-de-que-tengamos-una-ley-universitaria-mas-propia</a>		
<b>Berbazko Komunikazioa</b>	✓	✗
Prosodia		
Argi adierazi		
Labur adierazi		
Abilezia dialektikoa		
Zuzentasuna (hizkuntza-mailan)		
Zehatz adierazi		
<b>Balioespena (0-3)</b>		3
<b>Berberik gabeko komunikazioa</b>	✓	✗
Gogobetetasuna		
Naturaltasuna		
Keinuak		

<b>Bozeramailearen jarduna. Fitxa teknikoa</b>		
<b>BIDEOAREN ESTEKA: <a href="https://www.naiz.eus/en/mediateca/video/nekane-balluerka-ha-llegado-el-%20momento-de-que-tengamos-una-ley-universitaria-mas-propia">https://www.naiz.eus/en/mediateca/video/nekane-balluerka-ha-llegado-el-%20momento-de-que-tengamos-una-ley-universitaria-mas-propia</a></b>		
Janzkera		
Begirada		
Erakarmena		
<b>Balioespena (0-3)</b>	<b>2</b>	
<b>Helarazitako sentipenak</b>	✓	✗
Sinesgarritasuna		
Sedukzioa		
Koherentzia		
Lasaitasuna		
Sendotasuna		
Umiltasuna		
Oreka		
Bestelakoa		
<b>Balioespena (0-4)</b>	<b>3,5</b>	
<b>Azken balioespena (0-10)</b>	<b>8,5</b>	

<b>Bozeramailearen jarduna. Fitxa teknikoa</b>		
<b>BIDEOAREN ESTEKA: <a href="https://www.youtube.com/watch?v=OT2v5sqFa_Y&amp;t=544s">https://www.youtube.com/watch?v=OT2v5sqFa_Y&amp;t=544s</a></b>		
<b>Berbazko Komunikazioa</b>	✓	✗
Prosodia		
Argi adierazi		
Labur adierazi		
Abilezia dialektikoa		
Zuzentasuna (hizkuntza-mailan)		
Zehatz adierazi		
<b>Balioespena (0-3)</b>	<b>3</b>	
<b>Berbarik gabeko komunikazioa</b>	✓	✗
Gogobetetasuna		
Naturaltasuna		
Keinuak		
Janzkera		
Begirada		
Erakarmena		

<b>Bozeramailearen jarduna. Fitxa teknikoa</b>		
<b>BIDEOAREN ESTEKA: <a href="https://www.youtube.com/watch?v=OT2v5sqFa_Y&amp;t=544s">https://www.youtube.com/watch?v=OT2v5sqFa_Y&amp;t=544s</a></b>		
Balioespena (0-3)	2	
Helarazitako sentipenak	✓	x
Sinesgarritasuna		
Sedukzioa		
Koherentzia		
Lasaitasuna		
Sendotasuna		
Umiltasuna		
Oreka		
Bestelakoa		
Balioespena (0-4)	3	
<b>Azken balioespena (0-10)</b>	<b>8</b>	

Iturria: Ekoizpen propioa

## 5.2.2 Agerraldi neutroak

### 5.2.2.1 ETBri emandako adierazpenak (2016/11/27) eta HARABA!-ko kideekin izandako topaketa (2017/02/21)

<b>Bozeramailearen jarduna. Fitxa teknikoa</b>		
<b>BIDEOAREN ESTEKA: <a href="http://www.eitb.eus/eu/albisteak/gizartea/bideoak/oso/4511712/bideoanekane-balluerka-ehuko-errektore-berriarekin-hizketan-izan-gara/">http://www.eitb.eus/eu/albisteak/gizartea/bideoak/oso/4511712/bideoanekane-balluerka-ehuko-errektore-berriarekin-hizketan-izan-gara/</a></b>		
Berbazko Komunikazioa	✓	x
Prosodia		
Argi adierazi		
Labur adierazi		
Abilezia dialektikoa		
Zuzentasuna (hizkuntza-mailan)		
Zehatz adierazi		
Balioespena (0-3)	3	
Barbarik gabeko komunikazioa	✓	x
Gogobetetasuna		

<b>Bozeramailearen jarduna. Fitxa teknikoa</b>		
<b>BIDEOAREN ESTEKA: <a href="http://www.eitb.eus/eu/albisteak/gizartea/bideoak/osoa/4511712/bideoanekane-balluerka-ehuko-errektore-berriarekin-hizketan-izan-gara/">http://www.eitb.eus/eu/albisteak/gizartea/bideoak/osoa/4511712/bideoanekane-balluerka-ehuko-errektore-berriarekin-hizketan-izan-gara/</a></b>		
Naturaltasuna		
Keinuak		
Janzkera		
Begirada		
Erakarmena		
<b>Balioespena (0-3)</b>	1,5	
<b>Helarazitako sentipenak</b>	✓	x
Sinesgarritasuna		
Sedukzioa		
Koherentzia		
Lasaitasuna		
Sendotasuna		
Umiltasuna		
Oreka		
Bestelakoa		
<b>Balioespena (0-4)</b>	2	
<b>Azken balioespena (0-10)</b>	6,5	

<b>Bozeramailearen jarduna. Fitxa teknikoa</b>		
<b>BIDEOAREN ESTEKA: <a href="https://www.youtube.com/watch?v=Ngcp37gThbg">https://www.youtube.com/watch?v=Ngcp37gThbg</a></b>		
<b>Berbazko Komunikazioa</b>	✓	x
Prosodia		
Argi adierazi		
Labur adierazi		
Abilezia dialektikoa		
Zuzentasuna (hizkuntza-mailan)		
Zehatz adierazi		
<b>Balioespena (0-3)</b>	2	
<b>Berbarik gabeko komunikazioa</b>	✓	x
Gogobetetasuna		
Naturaltasuna		
Keinuak		

<b>Bozera mailearen jarduna. Fitxa tekniko</b>		
<b>BIDEOAREN ESTEKA: <a href="https://www.youtube.com/watch?v=Ngcp37gThbg">https://www.youtube.com/watch?v=Ngcp37gThbg</a></b>		
Janzkera		
Begirada		
Erakarmena		
<b>Balioespena (0-3)</b>	0,5	
<b>Helarazitako sentipenak</b>	✓	✗
Sinesgarritasuna		
Sedukzioa		
Koherentzia		
Lasaitasuna		
Sendotasuna		
Umiltasuna		
Oreka		
Bestelakoa		
<b>Balioespena (0-4)</b>	1	
<b>Azken balioespena (0-10)</b>	3,5	

Iturria: Ekoizpen propioa

### 5.2.3 Tentsiodun agerraldiak

#### 5.2.3.1 Eskratxearen balorazioa (2016/11/18) eta pintaden aurkako deklarazioa (2017/03/15)

<b>Bozera mailearen jarduna. Fitxa tekniko</b>		
<b>BIDEOAREN ESTEKA: <a href="https://www.youtube.com/watch?v=DXMHuZspS0k">https://www.youtube.com/watch?v=DXMHuZspS0k</a></b>		
<b>Berbazko Komunikazioa</b>	✓	✗
Prosodia		
Argi adierazi		
Labur adierazi		
Abilezia dialektikoa		
Zuzentasuna (hizkuntza-mailan)		
Zehatz adierazi		

<b>Bozeramailearen jarduna. Fitxa teknikoa</b>		
<b>BIDEOAREN ESTEKA: <a href="https://www.youtube.com/watch?v=DXMHuZspS0k">https://www.youtube.com/watch?v=DXMHuZspS0k</a></b>		
Balioespena (0-3)	3	
<b>Berbarik gabeko komunikazioa</b>	✓	x
Gogobetetasuna		
Naturaltasuna		
Keinuak		
Janzkera		
Begirada		
Erakarmena		
Balioespena (0-3)	2,5	
<b>Helarazitako sentipenak</b>	✓	x
Sinesgarritasuna		
Sedukzioa		
Koherentzia		
Lasaitasuna		
Sendotasuna		
Umiltasuna		
Oreka		
Bestelakoa		
Balioespena (0-4)	3,5	
<b>Azken balioespena (0-10)</b>	9	

<b>Bozeramailearen jarduna. Fitxa teknikoa</b>		
<b>BIDEOAREN ESTEKA: <a href="https://twitter.com/NBalluerka/status/842002435820388352">https://twitter.com/NBalluerka/status/842002435820388352</a></b>		
<b>Berbazko Komunikazioa</b>	✓	x
Prosodia		
Argi adierazi		
Labur adierazi		
Abilezia dialektikoa		
Zuzentasuna (hizkuntza-mailan)		
Zehatz adierazi		
Balioespena (0-3)	3	
<b>Berbarik gabeko komunikazioa</b>	✓	x
Gogobetetasuna		
Naturaltasuna		

<b>Bozera mailearen jarduna. Fitxa tekniko</b>		
<b>BIDEOAREN ESTEKA: <a href="https://twitter.com/NBalluerka/status/842002435820388352">https://twitter.com/NBalluerka/status/842002435820388352</a></b>		
Keinuak		
Janzkera		
Begirada		
Erakarmena		
<b>Balioespena (0-3)</b>		2,5
<b>Helarazitako sentipenak</b>	✓	✗
Sinesgarritasuna		
Sedukzioa		
Koherentzia		
Lasaitasuna		
Sendotasuna		
Umiltasuna		
Oreka		
Bestelakoa		
<b>Balioespena (0-4)</b>		4
<b>Azken balioespena (0-10)</b>		9,5

Iturria: Ekoizpen propioa

#### 5.2.4 Bideoen balorazio orokorra

7,5eko batz bestekoa, media du Nekane Balluerkak agerraldietan. Garai, espazio eta postu ezberdinetako egoerak ikertu dira ezagutzeko zeintzuk diren oraingo errektorearen abilezia eta gabeziak. Aldeko atalean naturaltasuna aurkitzen da. Mezu sinesgarria du esatariak eta bere hartzen ditu hitzak. Ikasita izan zein ez, adierazpen formalak egiten ditu prosodia aparta edukita. Ulertzen da zer transmititu nahi duen eta komunikazio egokia bideratzen du hizkuntza hiztegi, gramatika eta zehaztasun ona erabilia. Luzatu gabe eta motz gelditu barik. Balluerkak beraz, badaki zer nahi duten hedabideek. Gainera, zenbat eta barneratuago izan hartzaileari helarazi nahi dion informazioa, orduan eta keinu interesgarriagoak egiten ditu,. Begirada, oro har, zuzena da eta ez du ihes egiten. Memoria eta hitz egokiak bilatzearena beherantz begira egiten du Balluerkak, umiltasuna plazaratuz. Ideien esposaketan oreka mantentzen du ez delako bereziki artetatzen. Linealtasuna du jarraibide eta horrek egonkortasuna eskaintzen dio hizlari moduan, nahiz eta "punch"-a, indarra ken diezaiokeen.

Hobetzeko arloan, gorputzaren mintzaira zalantzarik gabe. Nekane Balluerkaren diskurtsoak benetan kemen gehiago edukiko luke besoek, eskuek enfasia emango baliate. Erraza da errektorea larrialdi batean



topatzea, aurpegiak asko adierazten ez duen arren, adurrik ez edukitzeak, adarren erabilpena ez egiteak mugatzen duelako. Alde izan zitzakeen uneetatik, (ETBren elkarrizketa esaterako) zukua atera ziezaikeen, unibertsitateko komunitatea medioetara ere ailegatzen delako, instituzio akademikoak arlo soziala kolpatzeko, iritzi publikoa edonon sor daitekeelako eta zenbait ikaslek izandako jarrera kontrajarria gailendu ahal zaiolako diskurtsoari, Balluerkaren sentimenduei. Jakin behar da unibertsitateak zer eskaini diezaiokeen gizadiari eta herriak zer espero duen EHUz.

Ideia biribiltzeko, bideoetan argi geratu da errektoreak badituela gaitasun komunikatiboak, baina hobetzeko hauta ere badaukala. Krisietan ezagutzen da nola kudeatzen duen hizlari batek mezua, zelan lor dezakeen koherentziaduna izatea, sinesgarria eta indar nahikoarekin. Horrenbestez, azpimarratzekoa izango da Euskal Herriko Unibertsitateko komunitateetako belaunaldi berriek zernolako eskaerak dituzten eta zelan ihardesten zaien horiei. Balluerkak ikasleen babes eskuratzean du bozeramaile onaren giltza, aurkariak argumentu ala hizketaldi gabe lagatzean; berben konbentzimenduan, alegia.

### 5.3 Kazetariekin izandako elkarrizketa laburrak

Miaketako azkenengo fasean, informazioko profesionalen aburuak irakurri daitezke. Hasieran esan denez, *focus group* bat sortzea zen nahia goren kazetarien arteko eztabaida, ihardespen konbinaketa idatziz jasotzeko. Saiakerak egon badira ere, ezinezkoa izan da komunikabideen arteko distantzia geografikoak eraginda. Bilbon, Gasteizen edota Andoainen aurkitzen ziren elkarrizketatuen lan egoitzak. Hala eta guztiz ere, segidako eleak Berriako Garikoitz Goikoetxearenak, Deiako Idoia Alonsorenak, Eldiarionorte.es-ko Eduardo Azumendirenak eta El Correoko Marta Fernández-enak dira. Galdeketak eta kontsultak eginak izan dira aurrez-aurre, telefonoz ala posta bitartez ordutegi ezberdinetara moldatuta emaitzarik onena eskuratzeko jomugarekin. Iritziak, antzerakoak.

Oroitzeko dago ere (gorago esan den moduan), eztabaida talderako zein ikerketako edozein arlorako *Ikasle Abertzaleak* mugimenduarekin kontatu nahi izan zela, batik bat, 2016ko azaroaren 9an Gasteizen zenbait ikaslek plazaratutako opisizio jarreraren muina topatzeko eta adierazteko. Ahaleginak egin arren, ez da ihardespenik egon.

Aurreneko interesa, hauteskunde prozesuaren, kanpainaren balorazio komunikatibo orokorra edukitzea izaera ezberdineko hedabideen partetik. Iturri guztiek zuten argi hautagaitza bakarria egotea ezkorra izan zela, Azumendik zioenez, “Balluerka zelako berorren aurkaria”. Bakarrik zegoenez, ez zeukan ikuspuntu kontrajarririk eta horrela ezin zen jakin ia “igerilekuak urik zeukan ala ez”. Garikoitz Goikoetxearen ustez, medioentzako ere “konplikatu izan zen hautagai bakarrak azaltzen zuelako haren proiektua eta konfrontaziorako, eztabaidarako aukerarik ez zegoelako”. Ideiek, Balluerka zuten soilik jatorri. Eldiarionorte.es-ko profesionalak, nabarmendu zuen

ordiziarra lehenengo emakumezko errektorea izatea, egungo instantzia politikoan gutxi direlako agintera edo botere postuetara ailegatzen direnak. Iritzi gehiago jakiteko asmoarekin, Alonsok zeritzon Balluerka komunikatiboki nahiko ondo egon zela kanpainen zehar “oso argia eta oso hurbila” izan zelako. Fernándezek, hautagaiaren lana azpimarratu zuen, unibertsitateko komunitate guztiakin hitz egin zuelako eta saiatu zelako ikasle, irakasle edota sindikatuen eskaerak batzen.

Gasteizen 2016ko azaroaren 9an suertatu zen “eskratxea” mahaian jarri behar. Gaia komentatu eta “sorpresa” ateratako berba. Goikoetxea: “Guretzako sorpresa bat izan zen jazotakoa ez zelako sumatzen “eskratxearen” beharrik. Egia da ere, tentsioa pixkanaka- pixkanaka joan zela areagotzen, Goirizelaiaren agintaldi amaieran ikusi zelako errektoretza eta ikasle talde batzuen artean alderaketak zeudela. Gasteizkoak goia jo zuen”. Azumendik Arabako krisia Balluerkak ondo kudeatu zuela esan zuen, “lasaitasunez, kaudimenarekin eta urduri jarri barik”. Deiaio kazetariak hautagaiarekin igarondako egun oso bat ekarri zuen gogora, istiluak jazo eta handik egun gutxira erreportajea zuelako ordiziarraren inguruan. “Transmititu zidan sentimena baretasunarena baina tristurarena ere izan zen. Hark argi zeukan berorren etxetik ez zutela botako eta itxura mantendu zuen egoera ezatsegina bazen ere”, izan ziren Alonsoren esanak.

Gaitasun komunikatiboen inguruan, aldeko puntuak izaeran. Fernándezen iritziz, Nekane Balluerkaren “zuzentasuna eta elkarrizketaren aldeko jarrera” ziren adierazteko modukoak. Berriako profesionalak ostera, kanpainen helarazitako mezuak zituen pentsamenduetan, Euskal Herriko Unibertsitateko estamentu ezberdinak ukitzeko proposak baitziren. Idoia Alonsok onartu zuen hautagaia normal ikusten zuela, arrunta, garagardo bat hartzeko norbaiten antzerakoa. Hobetzeko gakoaren artean azaleratu ziren kontu gehiago eta pluralagoak, Eduardo Azumendik, Balluerkaren aurkako ezer ez bazuen esan ere, posibilitateak ez zituen alboratzen: “Oraindik ez du gobernuarekin negoziatu aurrekontuetatik gehiago eskuratzeko, ez da legebiltzarrean agertu datozen urteetarako programa aurkezteko...ziur duela ezkorra den zer bait”. Deiaio iturria urrunago joan eta komunikazio kabineteak seinalatu zituen: “Askotan guztia hondatzen dutenak dira, kazetekiko harremanak, guztia naturala izatea. Kabineteetakoek berorien postu eta soldatak argudiatzeko gauza arraroak egiten dituzte eta bozeramaileak babesten dituzte ez dagoenean zertan”.

Iragana aztertu ondoren, etorkizunera begiratzuz, kazetarietara itaundu zitzaizkien ia zer espero daitekeen Nekane Balluerkaren gobernu taldeaz ondorengo lau urteetara begira. Garikoitz Goikoetxeak komentatu zuen “jarraipena, nahiz eta errektore bakoitzak estilo propioa duen”. 2008tik errektoretza taldean ordiziarra egon izana estimatua izan zen horrek esperientzia suposatzen duelako eta Azumendiren ustez, unibertsitatearen kasuan, “baikorra” delako. Erreflexu arindun gisa hautagaia eta egungo errektorea definituta, Eldiarionorte.es-koak “Balluerka onenak kontratatzen eta EHU mapan kokatzen dator” adierazpena gehitu zuen beroriekin banaka izandako solasaldietan. Alonsok, Deiatik eta beste behin kutsu kritikorekin

gestioaren zailtasuna biribildu zuen: “Harritzen nauena da hainbeste profesionalek osatzen duten unibertsitate batean Nekane Balluerkak alternatibarik ez edukitzea. Unibertsitateak eztabaidaren sorburu izan beharko luke eta ez laua. Kritikak doakoak dira baina aukera izan denean proiektu desberdinak aurkezteko ez da egin. EHU n gero eta itxiago daude berorien kontuetan, kargua eta katedra babestu nahi dute eta ez dira sartzen gestio arloan. Erreza da maiseatzea”.

Kanpaina egoki baloratuta, gaitasun komunikatiboak zehaztuta eta geroaren egoera akademikoa aurreikusita. Esan liteke errektoreak ikusmira positiboak biltzen dituela, Iñaki Goirizelaiaren taldean egon izanak, besteak beste, sektore batzuetan zalantzak loratzen baditu ere.

## 6 ONDORIOAK

Lanaren xede nagusia Nekane Balluerka, EHUko errektorea aztertzea izan da komunikazioaren abiapuntutik fokatuta. Euskarri eta baliabide askotariko edukiak miatuta, txostenaren hasierako hipotesi eta iker-galderak ihardetsi daitezke:

Nekane Balluerkak gaitasun komunikatibo handiak ditu. Naturaltasuna eta sinesgarritasuna ditu aldeko, diskurtsoa bere egiten duelako eta ikasita eduki dezakeen arren (EHU gizartearen erdian kokatzea, adibidea). Gainera, kanpainan ikusi zenez eta denboran mantendu duenagatik, komunitate desberdinak entzuteko jarrera dauka, ikusmira anitzetatik zer eskatzen den ezagutzeko.

Gorputzaren mintzaira hobetzeko dago. Gabezia ikusgarriena gorputzeko adarrek, keinuek ala begiradek ailegarazten dute, Balluerkaren hizketak pisua badu ere, gehiegizko hoztasuna duelako jarrera fisikoan. Irribarreak, besoen keinu irekiagoak beharko lituzke errektoreak komunikatiboki hazteko. Ondo legoke, aurkako egoeretan, eskuetan boligraforen bat edukitzea tentsioa deskargatzeko eta hanketatik hasita, tinko izateko edozein krisiren aurrean.

Gardentasunarena izan zen Nekane Balluerkaren taldea helarazten saiatu zen mezua eta irudia. “Aurre-sukalde” handirik gabe eta kanpoko aholkularitza eduki barik, errektore ordiziarra taldea eratzen hasi zenean hizketaldiak eduki zituen kideekin berorien iritziak ezagutzeko eta programako gaiak, neurriak ala proposamenak abstrakziotik zehaztasunera eramateko. Hautagaitza bakarra izan arren, azaroaren 24an hauteskundeak lehenengoz emakume batek irabazteak, zuzenean ala zeharka, aldaketarako, aro berria hasteko ideia ekarri zuen. Kanpainan egondako asmoa EHU gizartearen erdian aurkezteko izan zen, bestelako unibertsitateetako partaideek duten pareko harrotasuna erakunde publikoko jendarteari igarotzeko.

Hautagaitza bakarra izatea komunikatiboki ezkorra izan zen. Negatiboa bai Nekane Balluerkaren hautagaitzarako, haren diskurtsoak erronka handiagoa zuelako komunitate akademikoa motibatuzko; eta baita

bozkatzaileentzako ere, eztabaidarik, lehia dialektikorik ez zelako ikusi agerraldiak bakarriketa formatura eramanda eta ez ikusmira anitzetako hizketetara. Errektoretzarako kanpainaren 12 egunetan 49 agerraldi egin zituen Balluerkak, EHUko hiru campusetan eta fakultate ezberdinetan, ideiak kolektibo desberdinentzako prestatuta. Ikus-entzuleak ikasle, irakasle ikertzaile, zein administrazioko langileak izan zitezkeenez, aurrenekoentzako formakuntza kalitatea hobetzeko atea, ikasgai euskaldunak gehitzea, eskaintzak areagotzearen proposamenak egon ziren. Bigarrenek, karrera akademikoa berreskuratzeko eta indartzeko eskaintea eduki zuten, ustez, ordiziarraren botoarekin. Administrazioek, azkenengoz, enplegarritasuna izan zuten ardatz egunetan zehar.

Kanpainan egutegiak garrantzi nabaria eduki zuen komunikatzen zena antolatzeko. Bi prentsaurreko prestatu ziren, bata 2016ko urriaren 11n, Nekane Balluerkaren errektoregai izateko asmoa plazaratzeko eta bestea, 2016ko urriaren 21ean, hautagaitzaren taldea jakitera eman zenean. Bigarren datatik aurrera izan ziren baimenduak elkarrizketak, komunikabideen euskarrietara moldatuz, besteak beste: Irratietako magazinetan zuzenean egon, ahalik eta paperezko ediziodun medio gehienekin izan aldi berean albiste zena atari askotan edukitzeko eta tentsioa, egunez egun, ez galtzeko. Solasaldi askotarako deiak jaso baziren ere, ikaslegora gerturatzeko saiakeran, *Pepucomag*-i (GKZ fakultateko gazte batzuek gidatzen duten medioari) eskatu zitzaion elkarrizketa bat.

Erabaki tinkoak hartu ziren Gasteizen izandako “eskratxearen” pareko krisi komunikatiboen aurrean. Medioek hautagaitzaren adierazpenak edo ikuspegia behar zutenez, komunikatu bat argitaratu zuen Balluerkaren taldeak Arabako ekimena gaitzesten eta adierazpen askatasunaren aldarrikapena egiten, esate baterako, programa eta ideiak Gasteizko campusean ere partekatzen. Helburua hauteskundeak irabaztea zenez eta ez ikasle Abertzaleak mugimenduarekin lehiatzea, ez zitzaion oposizioari bestelako garrantzirik eman, arreta puntua diskurtsoetatik tentsioetara ez aldentzeko. “Eskratxearen” momentuan, 75 minututan kokatu ziren hautagaia eta kideak aurkako jarreradun ikasleen aurrean “ez zara ongietorria” moduko deiadarrak eta bultzadak jazotzen ziren bitartean. Nekane Balluerka, jazoeren aurrean, irmo mantendu zen ideiak partekatzen eta debatitzeko nahiarekin. Kontrako aburuak zituzten ikasleen jarrera aditzeko prest. Azkenean, ez zen egon programa aurkezteko edo horren inguruko eztabaidarik egiteko aukerarik eta hautagaitzak alde egin behar izan zuen. Alde guztiek burutu eta onartu beharreko elkarrizketaren premia dago.

Kazetariak komunitate akademikotik at, errektorearen kanpaina konplikatu bezala ikusi zuten. Hautagaitza bakarra izateak ez zuen pertsona eta proiektuen konfrontaziorako lekurik utzi. Balluerkak abstentzioa zeukan lehiatzaile nagusi eta Euskal Herriko Unibertsitateko arlo eta publiko ezberdinak motibatzea zailtasuna zuen. Ez zegoen argi hartzaileengana ailegatzeko mezuak egokiak zirenik edota sinesgarritasuna zutenik, besteak beste, Iñaki Goirizelaiaren taldean egon izanak jarraipenezko modeloaren sasi-iritzia zabal zezakeelako.

## ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKO ETA WEBGRAFIKOAK

### Bibliografia

- ALCOCEBA HERNANDO, José Antonio; PINTO ARBOLEDA, María Cristina. "Consideraciones y propuestas de mejora de la comunicación en las instituciones públicas Considerations and Proposals in order to Improve Communication in Public Institutions". In: *Mediaciones Sociales*, 9. zkia. 2011; 111-133orr.
- ANDRÉU ABELA, Jaime. "Las técnicas de análisis de contenido: una revisión actualizada". In: *Centro de estudios andaluces*, 2002; 34 orr.
- BLASCO HERNÁNDEZ, Teresa; OTERO GARCÍA, Laura. "Técnicas conversacionales para la recogida de datos en investigación cualitativa: la entrevista (I)". *Nure investigación*, 33. zkia.; 2008. ISSN: 1697-218X
- CAMACHO MARKINA, Idoia. "Comunicación institucional. Funciones de los gabinetes de comunicación en la administración local". In: *Revista Latina de Comunicación Social*. 44. zkia., 2001.
- CAMACHO MARKINA, Idoia. *Formación de Portavoces. Cómo conseguir una comunicación efectiva ante los medios y otros públicos*. 1 zkia, Bartzelona: UOC editoriala, 2017; 257.
- CANALES, Manuel; PEINADO, Anselmo. Grupos de discusión. "Métodos y técnicas de investigación en ciencias sociales". In: Madrid: *Síntesis psicológica*, 1994, 287-316orr.
- CRIADO GRANDE, Ignacio. "Comunicación en las administraciones públicas y aproximación a los ciudadanos. Junta de Comunidades de Castilla-La Mancha". In: *Documentación sobre gerencia pública, del Subgrupo A1, Cuerpo Superior, especialidad de Administración General, de la Administración de la Junta de Comunidades de Castilla-La Mancha*. 1. zkia., 2009. ISBN: 978-84-7788-550-4
- GARCÍA GALINDO, Juan Antonio. "Medios de comunicación y universidad". In: *Comunicar*, 1. zkia., 1993.
- GARCÍA-RIVAS, Marta Isabel. "Presente de la información institucional de la Universidad española. El caso de la Universidad de Murcia". In: *Comunicación y sociedad*, 16. zkia. 2003.
- HERRANZ DE LA CASA, José María; TAPIA FRADE, Alejandro; VICENTE LÁZARO, Arturo. "La comunicación interna en la universidad. Investigar para conocer a nuestros públicos". In: *Revista Latina de Comunicación Social*, 64 zkia., 2009.
- MARIJUÁN FERNÁNDEZ, Pedro; GIL MAZA, Beatriz. "La información, ¿abstracción o realidad?: Las paradojas de un concepto fundamental". In: *Scire: representación y organización del conocimiento*, 1. zkia. 1996; 11-21orr.
- ORTEGA Y GASSET, José. *Misión de la Universidad y otros ensayos sobre educación y pedagogía*. Madrid: Alianza Editoriala, 1992; 240 orr.
- PIÑUEL RAIGADA, José Luis. "Teoría de la información y ciencias humanas: Revisión del estatuto epistemológico del análisis de mensajes". In: *Reis*, 14. zkia., 1981; 69-92 orr.

Agirregabiria Lasagabaster, A.; Nekane Balluerka, EHUko errektorea. Hauteskunde...

RAMÍREZ DE LA PISCINA, Txema. *Bozera maileen trebakuntza*. Leioa: EHU/UPV argitalpen sarea, 2010; 142 orr.

RAMÍREZ DE LA PISCINA, Txema. *Los gabinetes de comunicación: funciones, disfunciones e incidencia*. Barcelona: Bosch argitaletxea, 1995; 254 orr.

SAN MILLÁN FERNÁNDEZ, Elvira; BLANCO JIMÉNEZ, Francisco; DEL ARCO PRIETO, José Carlos. "Comunicación corporativa 2.0 en la Universidad Rey Juan Carlos". In: *Universidad, Sociedad y Mercados Globales. En Comunicación corporativa*, 2. zkia., 2008, 394-408 orr.

VÉLAZ, Iñaki. "Las tres etapas de la comunicación interna". In: *Cuadernos de Empresa y Humanismo*. 1. zkia., 1998; 2-28 orr.

YANES MESA, Rafael. "La adecuación del mensaje informativo". In: , 39. zkia. 2001.

### **Webgrafia**

KANPAINAKO ORRIALDEA: <https://www.nekaneballuerka.eus> (Aurrerago esan denez, Nekane Balluerkak hauteskundeak irabazi eta handik gutxira desagertu zen webgunea)

ESKRATXEA: <https://goo.gl/HVaosW> Haraba! Proiektu komunikatiboa

1. BIDEOA: <https://goo.gl/H22yaX> Naiz.info

2. BIDEOA: <https://goo.gl/rgg9v2> EHU Irrati Maratoia

3. BIDEOA: <https://goo.gl/FymALk> Euskal Telebista

4. BIDEOA: <https://goo.gl/iKBu7A> Haraba! Proiektu komunikatiboa

5. BIDEOA: <https://goo.gl/5Dts8x> Europa Press

6. BIDEOA: <https://goo.gl/P6bcsU> Errektorearen twitterra